

El Ayuntamiento envió grandes palas mecánicas de fibra plástica para limpiar las calzadas de vidrios rotos, lo que unido a la proliferación de los paraguas especiales y a la aparición de los primeros autobuses de techo preparado al efecto, dio lugar a que la vida adquiriera algún signo de normalidad dentro del riesgo aún latente. Ello no hizo sino facilitar y promover que numerosos habitantes de los barrios más afectados dispusieran su traslado a otros puntos de la ciudad más seguros, hasta tanto no cesara el peligro.

Con el transcurrir de los días el éxodo fue en aumento pues las lluvias se intensificaron haciendo crecer la inquietud. Mi barrio quedó casi deshabitado.

Las caídas de vidrio fueron extendiéndose hacia otros lugares de la ciudad y los problemas se multiplicaron. Entre tanto, personalidades e instituciones seguían anclados en sus iniciales declaraciones; las calles quedaron alfombradas de colores, principalmente de verde y marrón, y ya los ingenios mecánicos no daban abasto; y los paraguas dejaron de ser un parapeto válido, pues ocurría que los golpes de viento hacían que las botellas volaran diagonalmente impactando contra la gente.

En breve, transformáronse las lluvias en furiosas tormentas, y éstas acentuaron el pánico ya existente, ganando adeptos los defensores de la idea del fin del mundo. Entonces, miles de personas, aprovechando los intervalos de calma, marcharon a instalarse en el centro de la ciudad, único sitio en el que aún sólo llovía agua corriente. La multitud se mal acomodaba donde podía, en locales comerciales, sedes bancarias, oficinas, iglesias, y los más afortunados en domicilios privados.

Pero muy pronto las tormentas llegaron igualmente a aquel territorio que parecía privilegiado, y dejó de haber lugar seguro. Tal hecho provocó que la gente volviera a formar largas procesiones de retorno hacia sus hogares, en los momentos de tregua.

Curiosamente, en medio del temor popular, una nueva declaración oficial, en esta ocasión del Gobierno del Estado, emanaba una no disimulada satisfacción por el hecho probado de que, con la propagación de los mortíferos vidrios por toda la ciudad, era ostensible la disminución de delitos contra la propiedad y los atentados en contra de la seguridad del orden público. Terminaba la sorpresiva declaración reconociendo a las lluvias de botellas como un mal menor, y aconsejando cordialmente a la población la necesidad de aprender a convivir con ellas. Eran los días finales de aquel mes de febrero de hace bastantes años.

En esa época eran ya varias las personas muertas, y el número de los heridos ascendía a muchos cientos. En un principio, tanta desgracia conmovió a los ciudadanos de otras partes del Estado e, incluso, del extranjero. Luego, el silencio informativo y las explicaciones gubernamentales y de algunos intelectuales fueron consiguiendo que la mayoría dejara de preocuparse por lo que ocurría en la castigada localidad. Empezó a parecer muy normal que en mi ciudad lloveran las abominables botellas.

Y en medio del temor de los de dentro y de la indiferencia creciente de los de fuera, el Observatorio Meteorológico proseguía sugiriendo, cada vez con más fuerza, la existencia de un secreto de Estado que explicara el fenómeno. Esta idea, unida a la propia nota difundida por el Gobierno, motivó que amplios sectores de la población, de los barrios más dañados en particular, comenzaran a elevar protestas cuando ello era propicio. Y, sucedió algo realmente digno de resaltar: cuanto más numerosas eran las marchas y manifestaciones, más estruendosas y prolongadas eran las tormentas de vidrio. En cambio, cuando la gente se comportaba más asustada y sumisa, se producían suaves lloviznas que se alternaban con periodos de calma. En ocasiones, no era factible salir a la calle sin correr el grave riesgo de ser golpeado por una botella, y eso en situaciones que a primera vista parecían de quietud y paz.

Y así es como estamos desde que viera llover la primera botella.

PRIMER PREMIO, en castellano
Concurso de Cuentos «Villa Rentería», 1985.



NIKOLAS FLAMEL-EN IRAKURKETA

«TXAUPINA»

«Mekaguen! Zer izan daiteke musker gurutziltzatu hau? Eta zer esanahi ezkutu izan dezake errugabeen lepamoztearen irudi lazgarriak? Herodes, ahalguztidun erregea, goikaldean, sarraskia agintzen duelarik hemen amak erregutuz, hil dautzan zazpi haurren alboan, eta azpikaldean soldaduek ume-odola husten dihardute eguzki eta ilargi bainatzen diren upelan. Eta zakilaren inguruan karabiltaturiko sugeek? Zer arraio adieraziko dute? Zoratzeko da, baina ezein esangura azaldu behar du honek guzti honek; ur zuria darion iturria, haitzuloak, haritz hutsa, urrezko orridun arrosak, Merkurio eta Saturno, dragoiak eta grifoak...»

Izurrite gorriaren zigorrakak Europa zaharra bortizki astintzean ireki zion zauria guztiz orbandu baino lehen, Frantziar armada burua makurtu beharrean aurkitu zen, Poitiers lautadan Printze Beltzaren soldaduek jasaneraziriko hondamena zela eta. Ehun urtetako gerrateak ez zuen hogeitabete oraindik. Anartean, herri xeheari ileak zutitzen zizkioten ingeles, espainiar eta gaskoien talde hiltzaileak Galia osoan zabaltzen ziren, haien atzean kirastzen zen su-odol -usaina ia Pariseko ateetaraino hedatzen zelarik.

XIV. gizaldiko Paris honetan, Saint-Jacques de la Boucherie kaperatik hurbil «Eskribauen karrika»ko etxe batetan, Nikolas Flamel-ek, ukondoak lan-mahaian jarrita, buru belarri irakurtzen zuen, zerbait ulertu nahirik, munduko gauzetaz arduratzeke.

Pareta lohien arrailak miresten uzten ez zuten liburuez gainezka zegoen langela. Liburuak nonnahi, eskuskriburik zaharretatik berrieneraino, denak zeuden hor, apaletan, haute eta armiarmasareen artean. Pergamino eta paperen itzalak luzatzen zituen eskubitatik dirdiratzen zuen ezkoargiak. Kandelaren gar urduriak—zirrikitutiko haizeak itzaliko ote?—liburua argitzen zuon, eta kolore bizizko marrazki sorgingarriak nabarmendu Nikola-en betseinentzat bereziki.

Bilo gorriaren kuskua batez jolas egiten zuen ezker eskuaren eri erakusleak; kirmilatzen zuen, gero, erpuarearen laguntzaz, ezari ezarian luzatzen joateko, harik eta erien menpetik askatuz atsedean egoerara itzultzen zeneino. urrutitik hondarrera iritsiriko itsasolatuak gogorarazten zituen, eta antza areagotzen zen gorabehera bakoitzean

jauzi egiten zuen zahiak aparra zirudielarik. Oharkabean aritzen zen honetan, burrukaren erdian aterpe bila korrika zebilen soldaduak, etsaiak ez bazekuskien ere, konturagabeki desarratzen zuen era berean. Ezker eskua aske zen, nahi zuena egiteko berjabea, garauna ez zen hartaz axolatzen, honek garrantzitsuagotan baitziharduen.

Atorraren lepoko izurdura ukitzeraino jaisten zitzaion ilaia; atorra latza, atorra luzea, soinekoa ere esan zekiokena belanuk ia estaltzen baitzituen. Zuela hiru aste jantzitako alkandora urdina; hiru asteetan gorputzari itsatsirik izerdiz busti eta lehorturik, koipe nario zenbaitek apaindurik bularraldean.

Liburutik zentimetro batzutara, kriseilu ezkoztatuaren parean hain zuzen ere, azpila zegoen, janari hondakinez beteta, maiz ibilia izan bailitzan garbitu gabe. Bi egun zen ezpainetara ahamenik hurbiltzeke; hamazazpi, azken aldiz bero jan zuenetik. Gose ezaten zuen urdaila, baina, halaz ere, hartzen zituen atsedenaldi bakanetan bakarrik haizu zion bere buruari zer edo zer irenstea. Emazteka erregalutako larru beltzeko gerrikoa estutu estutua zeukan sabolaren oihuminak irato nahiz; alabaina, errai hutsen mintzo otoigilea oihartzutzen zennoiz behinka pareta ilunen arteko espazio astunean.

Eskuin eskua, ezkerre ez bezala, irakurketaren manupean zegoen, orriak delikatuki pasatzea zuen betebeharrak. Ardura haundienaz altxatzen zuen goiko angelutik, haren azpitik hatzak sar ahal zitezen doi doi, ez gehixeago, ez gutxiago. Gero, beherunzko gididuran abiatzen zen, orriaren ertza ahurrean zehar labanduz; erdira iristen eusten zuen eta lagundu aurrekoaren gainean etzan arte. Honetaz arazotzen ez zenean, eta folio bakoitzari so eginez orduak eta orduak ematen zituen zuzen gero aise tarte ugari gozatzen zelarik, aste pare batetako bizarra harraskatzen entretenitzen zen. Bizarra gorria, itsaslapur entzutetsuarena bezalakoa, baina laburra oraino, eta zorrotza; liburua ekarri zion atzerritararena ematen zuen, nahiz harena beltza izan. Hura bai gizon estrainoa, alajaina!

Zirpilak zintzilik zeramatzen tunika urratu batez estalirik azaldu zitzaion dendaren atean. Aspaldian galdutako edertasunaren seinalea gordetzen zuen oraindik tunika marroiak; urruneko kulto baten zeremonia-janzkia zirudien. Oin beltzarantzen sandalia zaharrak narraztatzen ziren. Eskaletzat hartu zuen hasieran, eta txanpon bat ateratzeko keinua ere hasi zen egiten, baina orduan urrezko eskumuturrekoaren dirdirak itsutu zuen, miragarria zen!, eta bitxiaren liluraduratik jarein aurretik besapeko liburuaz ohartu zen. Ez, hura ez zen nolanhiko eskaldea.

Agurtzeke sartu egin zen, karrikaren lohiaz zipristinduz zoluaren ohol eskobatu berriak.

Hi al haiz Nikolas Flamel eskribaua? Kanpotar azentoko galdetu. Bai, nerau nauzu, ezertan lagun diezazuket? Erantzuna, gizon zaharreganako begirunea adierazten zuena. Motel, motel, hi hantzela jakin gabe denbora luzez bilatu haut, orain dela lau egun izan diat hire berri zebatz eta egunotan hiri hau behin eta berriro korritu diat hire arrastoren atzetik; nazkatzen hasia ninduan, bai horixe! Ahots kraskatu ia adiezatik hitz egin zion, lehen galderan hortz hori txantxartuen artean indar guztiak itzuri bailiran. Zer nahi duzu nitaz? Keskati, Nikolasek. Hi haiz, bada, banian dagoeneko hi ezagutzeko gogo. Atzerritarrak. Baina, zer nahi duzu? Kezkatiago, Nikolasek. Liburu honen hartzailea erideteari ekin nioan duela hainbat urte; orain aurrean daukadanean ezinezkoa zieritzoat nire bilakuntza nekazinari; horrenbeste pasadizo, horrenbeste hutsaldi, honekin sarituta, hi ikustearik ordainduta; lasai hil niaitekek orain. Hitz gehienak ez bazizkion ulertzen ere, konprenitzen zituenetatik ero baten aurrean zegoela susmatu zuen eskribauak. Beha ezak, guztiz lanpeturik niagok eta ezin nauk ibili solasetan astia ematen, beraz, edo agudo esaten didak esan beharko didaana, edo utikan! Harrituaren aurpegi marraztu zitzaion agure eguzkiak kiskailari, eta liburudendaren solairua zikintzen zuenetik agertzen zuen irribarra ezabatu zen haren ahotik. Geldiro hurreratu zitzaion eta liburua eskuetan ipini. Zaharra zen oso, eta zabala, urre kolorezko azalak zaindurik.

Aldez aurretik ikusia zuen, ametsetan menturaz, baina ikusia zuen, zihur! Eskuratzeko irrikia piztu zen haren baitan, begietan ere desira isladatzen bide zitzaion artean.

Atsegin huke edukitzea, bazekiat; horetzat ekarri diat; hiregatik jaso diat mila bidetako hautsa, hitaz itaundu zioat mila mendiri, eta ibairi; hire berri ezagutu nahiean entzun diat mila pertsonaren hitza; hil ez jakinik ere, hire bila nenbilan, hire bila ibili nauk oroitzen ez dudan garai batetik.

Lehen uneko sorpresari zalantzak, galderak, kezkek jarraitu zitzaizkion, gaineratu zitzaizkion, denak moltsotuak, gira bira zoroan, eta mututu zuten liburu-saltzailea.

Bi zilarrezko lisloredun txanponen truke hirea duk-hiretzat ez duk dirurik, baina nik behar diat nire herria bihur ahal izateko.

Bi florin! Ez zen inozo hezur-pilo hura, ez. Arrazoiak hauteman zuen judua behar zuela izan. Hala eta guztiz, eta garestitxo iruditu arren, liburua pausatuki hostokatzeko gogo sakonak, haren orrietan murgiltzeko nahi biziak berezko zuen errekdari-izaera azaltzea eragotzi zion; poltsikotik ziskua atera eta eman egin zion eskatutakoa. Kanpotarra, txanponen pisua nabaritu bezain laister, etorri bezala joan zen, liburuaren jabe berriari erreazionatzeko betarik uzten ez ziolarik.

Hiru aste iragan zen ordutik, eta eserita jarraitzen zen mahaitik begiak goratzeko.

Hiru etxalde zeharkatu eta gero aurki zitekeen zurgindegian eraikitako mahai sendoak, edergarriak gabekoak (hanka biribilen eustazpiei so egiten ez bazitzairen behinik behin) sostengatzen zituen liburua, kriseilua, azpila eta ukondoak. Haritezkoa zen, trinkoa, biptiak amesten zituzten horietarikoak; arras simplea halaber, lau hanka eta oholtzar bat. Haren sendartasunaren ondorio, apaingari bakarra nabarmentzen zen: edonola landutako elefante oin haundiak. Hauetako baten kontra kolpatzen zen beheko eskuin gorputzadarra, barne soinu baten eritmoa markatuz, antza, zeren kuskua karakoil-tzearen abiadurarekiko zerikusia antzeman baitzekiokene.

Oinutsik zegoen; hala ere ez zuen hotzik sentitzen. Botak, gerrikoaren gai berberaz eginak, beltzak beraz, mahai azpian aurkitzen ziren, ahantziak zuela bost edo sei ordu kendu zizkion bere buruari, oinak blaitzen zituen izerdia eguras zedin gelako aire estatikoan, geldituan.

Orkatiletaraino iristen zitzaizkion artilezko galtzak; emazteak maitekiro eho zizkion, eraman ohi zuen arropa gehiena bezala. Emaztea sutondoan gongo zuten, ondoko aretoan, zeta, liho, artile, orratz eta harien artean iruten edo josten ariko zelarik, goruaren zurezko laguntzarekin bakartatea hausteko ahaleginetan.

Nikolas Gardul eskribauaren aurpegian, ile gorritz markoztatuturiko aurpegi horretan, nekea eta lorik eza nabari ziren; zurbilduran betazpi ilunak gailentzen ziren; bizarra eta ezpainak eliku fits-mits lehorrek pikardatzen zituzten, belardi eta basoak udaberriko elur erdi urtuak makulatzen zituen antzera; biloak zegoeneko ez zuen orraziaren irudi zirriborotsua besterik gogoratzen.

Begiak, aldiz, inoiz baino biziagoak ziren; nagusi zen ahulezia orekatzeraino alai eta distiratsuak, basamortuko iturri, kanposantuen erdian haur jostalari ziren. Konzentrazioa. Liburuaren marrazki eta lerroetan kokatu ziren eta gainerakoarentzatitsu bihurtu. Orri zurien eta garaunaren bitartekoa ziren, beste zereginik ez zuten liburua begiratzea baino.

«Nola ulertu beharko da beste eskena hau? Errege gazte liraina kobazulora sartu da, hemen urrezko talarea erantzi eta Saturnori ematen dio berrogei egunez gorde diezaion, berehala gerrontzea ere kendu eta hau Jupiterri eskaintzen dio, gero eta biluzikago, gero eta makal eta zaharrago dagoelarik, eta koroa Martitzen eskutan jartzten duenean zahar kihil zimurtua da, zer izango da? Erregearen atributuak erregetasuna bera direla? gorputza deusik ez dela? Eta zer pintatzen dute jainkoek? Metalen pertsonifikazioa, akaso? Baina, orduan, zer ordezkaten du erregeak?, eta zer janzkiak uzteak?....».

So zorrotzen, so sarkorren begiak, ispiluaeren irudira mandatari fidelak; aurpegi zikin eta argalean ur garbia, gorputz xehatuaren bizitza-gordailua baina gatibu; ezin zezaketen gauz gauza hegaz egin, ez kolorez kolore, ez izakiz izaki; ezin zitezkeen haren ahalmen miragarriaz goza. Hizkien mezu ezkutatuaren atzetik erratzera kondenaturik zeuden, zeinu misterioitsuak arakatzera betiko behaturik. Lerro zuzenean barrena nora ezean zebiltzan, arloterian. Maisu Canches-ek horrelakoak zeuzkan ere.

Sasoi hartan ez zukeen Nikolas Flamel-ek ezagutu, bai, ordea, bi urte beranduago Santiago apostoluaren hilobitik itzultzen zelarik eri gertatu zenean. Orduan, gau hotzean langelan betileak erretzen ari zen bitartean, ez zitzaion burutik pasa ere egun batetan etxetik irtengo zela, liburuaren gakoa argituko zionaren bilaketa desesperatuan.

Aditzen didak? hobeki sentitzen haiz? Xuxurlatu zion ahots leunak, lo sendagarria uxa ez zedin, baldin Morfeoren besoetan kulunkatzen jarraitzen bazen; alabaina, lekamuts irudigaitzetatik esnarazi zuen, azkenik. Non nago? Bekainen azpiko lanbroa xahutu ondoren, sabai berriaren azpian, esan zuen. Nire etxean hago, gogoak tinkatzen zian sukarra sendatu diat; edan ezak hau orain; indartuko hau. Une honetantxe ikusi zizkion begiak, eta bizkarrezurrean beheara emeki dardaratu zen hotzikara; era berean, geldi geldiro, loaren harrapakin bihurtu zen berri.

Eguzki errainuek berotu zuten logela iratzarri zenerako; ongi aurkitzen zen, denbora luzetik ez zuen atsedetik hartzen, eta jasandako gaixotasunarengatik ere pozik eta gogo berriz horniturik atera zituen nagiak. Etzalekua apain eta dotore zen, ohe biguna, maindire ikuzi berriak. Aulki batetan urritzezko makulua eta maskorrak, hain bide astunetan zehar laguntzaile aldentezinak izanik, jabearen oinetan zetzan zakurra legez, itxoiten ari zitzaizkion.

Egunon! Sartu zen maisu Canches. Ederra diagu egitan. Begirada haren anfitrioiaren itxuran finkatuz, itzuli zion agurra. Beraz, ederki diagok gure erromesa, ez?, eta gose ere izango duk oker ez banabil. Mintzatu zen, jakiz mukuruturiko erretilua zenkarren neskame lodi osasuntsu bati sar zedin aginten zion bitartean. Santiagotik hentorren, ezta? Frantziaren iparraldetik hona maskuilu asko ziztatu bide duk, ez da horrela? Mastekatzea uzteke, eta nola jakingo zuen tipo horrek frantziarra zela bere buruari galdezka, ihardetsi zion. Bai, Santiagora joan nauk, egin nuen promes bat zela eta, eta bidean maiz gelditu behar izan diat oin nekatuentzat pausu bila. Ahamen etengabeen oztopoez aise libratzen zelarik, hitzegin zuen eskribau-ohiak. Sukarrez, eta Jeriko-ko akerrek bezala usin egiten huela topatu hindudan; akitua hintzen, baina ez zuan belar batzuek baliatuz konpondu ezin zen ezer; halere, eldarnioan eman huen asti aski, beti solasean, batzuetan ahopeka, oihu ikaragarrika besteetan, baina ixildu gabe; horregatik nekian frantziakoa hintzela, hire azentoak ez dik enganiatzen. Ostariaren entrama asegaitzak zirikatuta, urdaiatzpiko zati bat ezpainetaratzetakoan esan zuen Nikolas Flamel-en ongileak. Eta zertaz aritzen nintzen? Galdetu zion, eritasunean beharbada gehiegi mintzatu zelakoan. Gauza askotaz, zure emazte joskinaz, liburuak kopiazteaz, eta saltzeaz, dendaz..., baina batez ere «sekretuetan sekretuena» aipatzen huen: berri gehiagorik eskaintzeke. Adi-adi begiratu zuen erretilua hustear zeukanak. Gehiagorik ez? Guztiz sinistu gabe, begi barrenkorretatik soa kenduz. Ez, hori izan ezik, ez huen hitz gehiagorik atera.

Gauaren hotza ihintzak hezitzen zuen moduan, leunkiro, isil-tasunak estali zuen elkarrizketa. Noizik behingo korrokadek ez beste eten zuten aire garbia. Neskameak atea zeharkatu eta ibilkera barregarriaz eraman zituen janari hondar urriak.

Sengadile haiz? Bere zalantzarik gabeko sendapenarengatik ere, ohizko petrikiloen itxura ez zuenez gero. Herri sendagile apala nauk, bai, eta ez diat sei legenak sendatzeko asmorik. Frantziarraren gorputza durduzadurak astindu zuen, eta bat batean maneratu zuen urduritasunaz zeharo askatu ezin zelarik biziki hunkiturik, galde egin zion. Zer esan duk?, nik ezagutzen ditiat sei legenak, kobrea, beruna, eztainua... sendatzea zeharaldatzea duk, urre bihurtzea; alkimista haiz hi. Toteldu zuen, gero eransteke. Hona iristean ikusi nian hemen idoro behar hindudala, inguratzen gaitun dena urrezkoa baita; bukatu duk neure bilaketa. Pulsua menperatu ezinean, golkotik atera eta liburuaren kopia erakutsi egin zion; maisu Canches-en adieragabeko irribarrearen aurka jo zuen Nikolas Flamel-en alaitasun zoroak. Orain hasten duk heure zinezko bilakuntza, orain, orain. Eta jarraitu zen. Ez pentsa harri zuria edo gorria sortaraztea helburua denik, ez duk horrela; hori errazena duk, minerale guztietan urrearen emanuina baitago; horiek oso aldapatsu den eskaileraren lehen mailak dituk, Lan Haundia ez duk hor gelditzen, Absoluturantzia igan behar duk; urtu behar duk, gogo bilakatzuz; ostondo kosmikoetan zehar beste kontzientzi-leku batzuekiko lotura lortu behar duk.

Baina maisu Canches topatu arte loreek bi bider sortu eta usteldu behar izan zuten, bi bider hostoek bataiatu eta hobiratu.

Bizkarralderik gabeko aukiarekin kontra ezker ipur-masaila inurritzen hasia zitzaion; baina garauna ez zen honetaz jabetzen ere. Leitzeak itsutzen zuen.

Munduan, Frantzian, bere etxean bertan gerta zitekeenetik zeharo urrundurik, Nikolas Flamel, betazalak hertsia, liburuaren marrazki miragarrietan sakonduz zihoan, galeratzen zitzaion esanahia argitu nahiz, ezagutu nahiz, jabetu nahiz.

«...kaduzeoa daramalarik Merkurio hegan dabil Saturno, buruan hondar-erloju batekin, segaz armaturik Merkuriori oinak mozteko asmoz jaisten da odei artean; Saturnok beruna ordezkutzen du, eta Merkurio geldierazten du, hau da, zilar aldaezin bihurtzen du; Merkurio agente filosofala izango da. Baina bilakabidea nola zertzen den ez dator inon, beti puntu berberan bukatzen da. Baldin baneki! Liburu madarikatu honek ez bide dakar, orduan nola...».

«Erreterria Hiria»

IPUIN LEHIAKETA IRABAZLEA, 1985.